


UDAL BATZORDEEN BERRI

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Komunikazioa, partaidetza eta gardentasuna (2018/02/20) Hurrengo saioa: 2018/03/06	Erretaularen zabalkundea	Josu Maroto, Diputazioko arkitektoarekin egon ondoren, dibulgaziorako aukera bezala, Itsason egiteaz gain, Koldo Mitxelena Kultur gunean egitea proposatu digu (Maiatzean, seguruenik). Sortu nahi dugun elkartearen harira, K bulegoaren berri ere eman digu (kultur arloan lan egiteko egitasmoak bultzatzen dituen informazio gunea) Elizako gangak errestauratzeko aurrekontua eskatzearen beharra ikusi da.	Koldo Mitxelenarako prestatu behar den dokumentazioa prest egon dadin jarraipena egin K bulegoakoekin hitzordua adostu eta bilerara joan. Equipo 7koa den Javier de Migueli aurrekontua eskatu
	Emakumeen eguna	Aitzindariak proiektua Itsason izango dugu martxoaren 6tik 18ra bitartean. Kokagunea ostatuan izango da baina lekua erabat zehazteke dago oraindik (19 panel bistaratu behar baitira). Erakusketaren egutegia eta ordutegia adostu dira: martxoaren 8an (13:00etan) eta martxoaren 10ean (19:30) bisita gidatuak. Gainontzeko egunetan, erakusketa ikusgai egongo da.	-Materialaren bila Goiekira joan -Erakusketa jarri - <i>youtube</i> -ko bideoak proiektatzeko prestatu -Bisita gidatua prestatu - Deialdia zabaldu
	Herritarren kontakturako datuak osatu	Herrira etorritako bizilagun berrien datuekin, datu basea gaurkotu nahi da eta Udaletxeko telefono finkoa ere bertan txertatuko da.	Bizilagun berriei beraien datuak erabiltzeko baimenak eskatu
	Euskara ikastaroa	Herritarren beharrei erantzuteko eskaintzari buruz aritu gara: oinarrizko maila, mintzalaguna, titulua atera nahi dutenena,... Irailetik aurrera izan daitekeela aurreikusten da.	Ideiak sakontzen jarraitu.

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Ekimen sozio-kulturalak (2018/02/27) Hurrengo saioa:	Emakumeen eguna	Emakumearen eguna zehazten aritu gara: erakusketako materiala nork ekarri, noiz jarri, zein iraupenarekin,... Egingo diren ekintza desberdinak zehaztu (nork egingo duen bisita gidatua, ...), bideo emanaldia noiz txertatu, erakusketaren ordutegia Ostaturkoekin adostu,... Erakusketaren ordutegia eta Bazkarirako izen emateko deialdia noiz zabaldu	Erakusketaren balorazioa egin.



ITSASOKO
UDALA
(GIPUZKOA)

2018/03/13	Plazako tiloak	Itsasoko plazako tiloen adarren mozketak Narraspek egingo du (laguntzarekin).	Zein lekutatik moztu daitezkeen jakiteko, aholkua eskatuko zaie herritar batzuei.
	Alegiko frontoiko kanaloiak	Frontoiko kanaloiak garbitu beharra dago	J. C. Gorrotxategirekin hitz egin.
	Herri Batzarra	Data finkatu da: Martxoak 17.	Prestaketa lanarekin hasi

LAN-TALDEA	AZTERGAIK	GARATUTAKOA	HURRENGORAKO
Azpiegitura eta ingurumena (2018/ 02/28) Hurrengo saioa: 2018/03/14	2017ko aurrekontuen I eta II kapituluaren azterketa	Aurrekontuetako partida bakoitza errepasatu da, zenbat diru aurreikusi zen eta zenbat gastatu den ikusiz	VI kapitulura arte jarraitu lanetarekin
	2018ko aurrekontuetan doikuntzak	2017an gastatu denaren arabera 2018rako aurreikuspenak egin dira bi kapitulu hauetan	VI kapitulura arte jarraitu lanetarekin
	Alegiko frontoirako sarreran loreontziak	Alegiko "Apaiz-etxe"-aren segidan jartzeko loreontziak aukeratu dira (hormigoizkoak, harri	Loreontziak eskatu eta Narraspek ipiniko ditu